

Drogen kontsumoaren ziozko tratamenduen kopuruak behera egin du azken hamar urteotan Euskadiko gazteen artean

Gazteek drogak direla-eta hasten dituzten tratamenduetan kokainak hartu du heroinaren lekua droga nagusi gisa



15 eta 29 urte bitarteko 814 gazte hasi dira droga-mendetasunen aurkako tratamenduetan 2004an. Datuen garapena aztertuz gero, 1993an 1.406 tratamendu hasi ziren, beraz, denbora-tarte horretan beherakada % 42koa izan da.

2004an gehien eskatu diren tratamenduak kokainaren kontsumoaren ondoriozko arazoek kontrakoak izan dira (% 47,3). Cannabisaren (% 15,4) eta heroinaren aurkakoak (% 14,1) askoz atzerago daude.

1998 urtea inflexio-puntua izan zen bai tratamenduen kopuruaren jaitsierari dagokionez, bai kontsumitutako droga-motari dagokionez. 1990eko hamarkadan droga nagusia heroina izan bazen ere, mende berriarekin kokaina gailentzen hasi da. 2003ko eta 2004ko datuek, izan ere, kokainaren eta cannabisaren ziozko tratamenduen gorakada nabarmentzen dute.

EAEko 15 eta 29 urte bitarteko biztanleek hasitako droga-mendetasunen aurkako tratamenduen kopurua, droga-moten arabera. Zenbaki absolutuak eta portzentajeak. 1993-1998-2003-2004

	1993		1998		2003		2004	
Guztira	1.406	100	832	100	800	100	814	100
Heroina	1.347	95,8	528	63,5	158	19,8	115	14,1
Kokaina	53	3,8	87	10,5	343	42,9	385	47,3
Anfetaminak	-	-	32	3,8	46	5,8	54	6,6
Speed-a	-	-	37	4,4	40	5,0	37	4,5
Estasia	-	-	12	1,4	5	0,6	2	0,2
Cannabisa	-	-	62	7,5	115	14,4	125	15,4
Alkohola	-	-	55	6,6	76	9,5	74	9,1
Bestelako substantziak	6	0,4	19	2,3	17	2,1	22	2,7

Iturria: Osasun Saila

Drogen kontsumoarekin lotutako tratamenduak hasten dituztenak mutilak dira gehienbat. 2004ko datuei bagagozkio, tratamenduen % 82 mutilek egiten dituzte eta % 18 neskek.

25 eta 29 urte bitarteko gazteak dira nagusiki drogak direla-eta tratamenduetara joaten direnak: adin-tarte horretako 401, izan ere. 20 eta 24 urte bitarteko gazteak 295 izan dira eta, 15 eta 19 urte bitartekoak, aldiz, 119.

20 eta 29 urte bitarteko gazteen kasuan, tratamendurik eskatuena kokainaren kontsumoagatikoa da, eta 15 eta 19 urte bitarteko gazteen kasuan, cannabisaren kontsumoagatikoa.


EAEko 15 eta 29 urte bitarteko biztanleek hasitako droga-mendetasunen aurkako tratamenduen kopurua, droga-moten eta adin-taldean arabera. Zenbaki absolutuak. 2004

	15-19	20-24	25-29
Guztira	119	295	401
Heroina	6	27	82
Kokaina	30	155	201
Anfetaminak	14	24	16
Speed-a	12	12	13
Estasia	2	0	0
Cannabisa	44	53	28
Alkohola	5	22	47
Bestelako substantziak	6	2	14

Iturria: Osasun Saila

Drogen kontsumoa dela-eta hasitako tratamenduen kopurua jaitsi egin da hiru lurralde historikoetan. Beharakadarik nabarmenena izan duena Gipuzkoa da, 1993ko kopuruaren erdia baino gutxiago baita gaur egun bertan erregistratzen dena. Atzetik Bizkaia datorkio, % 41eko jaitsierarekin. Araban indize horrek % 5ean egin du behera.

EAEko 15 eta 29 urte bitarteko biztanleek hasitako droga-mendetasunen aurkako tratamenduen kopurua. Zenbaki absolutuak. 1993-1998-2003-2004



Iturria: Osasun Saila

Erlazionaturiko datu-taulak:

[1. taula \(pdf, 59 kb\)](#)

Erlazionaturiko estekak:

[Gazteen Euskal Behatokiaren estatistikak](#)